

Lehen i8ak entregatu dira

Ormaiztegin, 2016ko ekainaren 7an

Irizarrek i8 modelo berriaren luxu handiko lehen 100 autokarrak entregatu ditu

Aurkezpena egin ondoren hilabete batzuk nahikoa izan dira Irizarren luxu handiko i8 modeloaren arrakasta berresteko. Autokar hau eskuratzerakoan bezero leialek eta bezero berri diren Europako operadore askok Irizar markan konfiantza erakutsi dute. Izan ere, autokarrak azken aurrerapen teknologikoak ditu eta luxu handiko zerbitzua eskaintzen du, konfort eta segurtasun handienarekin bidaiari nahiz gidariarentzat.

Txekiar Errepublikako Student Agency eta Estoniako Lux Express, Poloniako Arotrans eta Oscar, Erresuma Batuko Stewarts, Clarkes, Ellisons eta Guideline, Frantziako Faure eta Thermevasion, Belgikako De Wilge, Danimarkako Rod Billet, Errumaniako Tarsin, eta Espainiako Esteban Rivas, Agostense, Jesus Abadia, Donato, Autocares Benito, Ramila eta Estebanezaja dira euren konpainietan dagoeneko Irizar i8ak dituzten bezeroak.

Aipagarria da autokar modelo berri honek Europako kirol taldeetan izan duen harrera bikaina. Europako Kopako txapeldunek, West Ham Unitedeko jokalariek, Lyongo Olimpique taldekoak eta Uci-Protourreko AG2R txirrindulari talde frantsesak estreinatu berri dute.

Autokar modelo hau aukeratzeko arrazoia da bezeroek abangoardian egon eta irudiari dagokionez erreferente bihurtu nahi dutela. Eta, gainera, bidaiariei luxuzko zerbitzua eskaini nahi dietela, bakarra, ziurra, modernoa, pertsonalizatua eta eroso.

Entregatutako ibilgailu horien artean integralak nahiz txasi gainean fabrikatutakoak daude eta haietako bakoitzak aukera eta espezifikazio ugari du, autokarra operadore bakoitzarentzat pieza bakar bihurtzen dutenak.

Irizar i8a

Irizar i8a luxuzko ibilgailua da ibilbide luzeetarako, zerbitzu berezietarako eta beste erabilera berezi batzuetarako eta merkatu teknologia aurreratuena du.



Markaren ikono bihurtu da dagoeneko eta kanpo eta barne diseinu liluragarriak ditu abangoardiako teknologiarekin batera.

Parametro zorrotzenak kontuan harturik sortua, Irizar i8-a ibilgailu seguru, sendo, arin, isil eta fidagarria da.

Bere aerodinamikak eta pisuen optimizazioak errentagarritasun oso handiko ibilgailu bihurtzen dute operadorearentzat.

Irizar i8an bidaiatzea esperientzia berdingabe bihurtzen da. Butaka berriak garatzeko ergonomia, erosotasun, funtzionalitatea eta egokitze gaitasuna bezalako kontzeptuak hartu dira aintzat eta aukera asko dituzte; besteak beste, aisialdirako sistema pertsonalizatuak eta interneten nabigatzea.

Mexikon

Irizar i8a azaroan aurkeztu genuen Mexikon eta arrakasta handi izan du. Dagoeneko mila unitate inguruko eskaera zorroa dugu. Herrialdeko operadore handi guztiek Irizarrengan konfiantza dute gama altuko zerbitzuak emateko. Mexikon VIP autokarren eskaera handia da luxuzko zerbitzuetarako eta linea horietan ezin hobeto egokitzen da Irizar i8-a, hain juxtu ere, diseinuan, segurtasunean, teknologian, erosotasunean eta fidagarritasunean dituen ezaugarriengatik.

Mexikoko aurreikuspenek eta Europako salmenten arrakastak Irizar mundu mailako erreferente bihurtzen dute luxuzko autokarren segmentuan.